



## **AIARAKO UDALAK 2020ko UZTAILAREN 23an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

### **PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna  
Montse Angulo Solloa andrea  
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna  
Itxaso Gorbeña Allende andrea  
Unai Campo Arenaza jauna  
Karmele Población Martínez andrea  
Marian Mendiguren Mendíbil andrea  
Koldo Mendioroz Goldaraz jauna  
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hogeiko uztailaren hogeita hiruko hemeretziak eta hamabost minutu direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki erakundearen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 1569/1986 Errege Dekretuaren 79. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

### **EZ DA BERTARATU**

Susana Martín Benavides andrea

### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die guztiei, eta, beste aipatu gabe, GAI-ZERRENDAN jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote.

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2020ko ekainaren hamabosteko ohiko osoko bilkuraren akta.-** Ez da inolako parte-hartzerik egon, beraz, akta hori aho batez onetsi da.

**2.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, Aiarako Udalaren eta «Aranzadi» Zientzia Elkartearen arteko hitzarmenari buruzkoa.-** Ondoren, Aiarako Udalaren eta «Aranzadi» Zientzia Elkartearen arteko 2020ko hitzarmenaren kontu eman zaio Udalbatzari. Hitzarmenak honako hau dio:

**“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, AIARAKO UDALAREN ETA «ARANZADI» ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENARI BURUZKOA”**

*HAU IKUSI DA: Aiarako Udalak udalerrian antolatzen diren adierazpen eta ekimen kulturalak sustatzeko eta laguntzeko duen interesa.*

*HAU IKUSI DA: Udalbatzaren erabaki-proposamena, Aiarako Udalaren eta «Aranzadi» Zientzia Elkartearen arteko hitzarmenari buruzkoa, Babioko aztarnategiko ikerketa eta arkeologia-indusketa bultzatzeko.*

*HAU AINTZAT HARTU DA: Kreditu egokia eta nahikoa dago hitzarmen horren gastuak estaltzeko 2020ra luzatutako 2019ko Udal Aurrekontuko 336.481.008 aurrekontu-aplikazioan.*

Aurreko guztia dela eta, proposatu da Udalbatza Osoak honako erabaki hau onestea:



**LEHENENGOA.**- Onestea Aiarako Udalaren eta «Aranzadi» Zientzia Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, Babioko aztarnategiko ikerketa eta arkeologia-indusketa bultzatzeko 2020 ekitaldian zehar. Hitzarmenak honako hau dio:

**«AIARAKO UDALAREN ETA «ARANZADI» ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BABIOKO AZTARNATEGIKO IKERKETA ETA ARKEOLOGIA-INDUSKETA BULTZATZEKO**

Aiara, 2020ko (a)ren (e)(a)n.

**HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, AIARAKO UDALEKO alkate-udalburu **GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA**, Udaleko idazkari M<sup>a</sup>. Del Carmen Rojo Pitillas andreak lagunduta.

Beste aldetik, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX ARANZADIKO ZIENTZIA ELKARTEAREN (IFK G-20059135) ordezkartzan. Elkarte hori Zorroagaina 11 helbidean dago (20014, Donostia – Gipuzkoa) eta 1947an sortu zen, eta 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretuaren bidez Erabilera Publikoko Erakunde izendatu zen.

**PARTE HARTU DUTE**

Lehenak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, tokiko erakunde horren izen eta ordezkartzan, horretarako gaitasun eta eskumenekin, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrenak, Aranzadi Zientzia Elkartearen (IFK G-20059135) izen eta ordezkartzan. Horren nortasuna eta ordezkartza egiaztatu egin dira Elkarteak berak egindako ziurtagiri baten bidez.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri gaitasun juridikoa eta jarduteko ahalmen osoa **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau sinatzeko eta betetzeko, eta, horretarako, honako hau

**ADIERAZI DUTE**

**LEHENENGOA.**- Erakunde biek alde aurretik egin dute lan Babioko (Aiara) aztarnategiaren inguruan zientziako esku-hartzeak sustatzen.

**BIGARRENA.**- Aranzadi Zientzia Elkartearen 1947an sortu zen eta honako hau du oinarri, bere estatutuen barruan: zientzia-ikerketak eta azterketa teknikoak egitea hainbat arrazoiren ondorioak jasan dituzten giza- eta natura-esparruetan, hala nola gizartean, orokorrean, egindako lanak jendarteratzea, betiere arkeologia, etnografia eta ondare naturala zainduz (Elkartearen estatutuak, 2002-03-25).

**HIRUGARRENA.**- Aranzadi Zientzia Elkartearen irabazteko asmorik gabeko erakundea da, hala izendatu baitzuen 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretuak, zeinaren bitartez Eusko Jaurlaritzak Zientzia Elkarte hori Erabilera Publikoko Erakunde deklaratu zuen.



**LAUGARRENA.-** Babio eta bertan dagoen aztarnategia Izoriako Administrazio Batzordearen jabetzakoak dira, eta horren nahia eta helburua dira bertako ondarea babesteko eta jendarteratzeko konpromisoa hartzea.

**BOSGARRENA.-** Babion egindako zientzia-ikerketak Aranzadi Zientzia Elkarteko lagunek eta kideek gauzatu dituzte. Azken urteetan, Aranzadiko kideek eta ikasleen taldeek landa-lanak eta arkeologia-ikerketak egin dituzte auzolanean.

**SEIGARRENA.-** Aplikatzekoa den araudia zorrotz betez eta tokiko erakundeei lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko laguntzen dien eskumenaren bidez, bi aldeek formalizatuko dute lankidetzaren hitzarmen hau, betiere, jarraian zerrendatutako estipulazioak betetzen baditu

### **ESTIPULAZIOAK**

#### **LEHENENGOA.- Hitzarmenaren helburua**

Hitzarmen honen helburua da **AIARAKO UDALAREN eta ARANZADIKO ZIENTZIA ELKARTEAREN** arteko lankidetzaren eremua eratzea, **BABIOKO AZTARNATEGIKO** zientzia-ikerketak gauzatzeko 2020 ekitaldian zehar, metodo eta teknika modernoak eta disziplina anitzekoak bitartez. Ikerketa horren emaitzak modu publikoan gizarteratuko dira.

#### **BIGARRENA.-**

Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia ekitaldi honetan zehar Babioko aztarnategian egingo den aipatutako zientzia-ikerkuntza ekintzak ekarriko dituen gastuen dirulaguntza zehaztuko da.

#### **HIRUGARRENA.-**

2020rako lankidetzaren hitzarmen honetarako udal-dirulaguntza 10.000,00 eurokoa da.

Udalak hitzarmen horren helburu den jarduera sustatzeko emango duen dirulaguntza aipatutako zientzia-ikerkuntzak eragingo dituen gastuak estaltzeko izango da, zehazki, langile teknikoak kontratatuzko gastuak, edo enpresa espezializatuak kontratatuzkoak, betiere, indarrean dagoen araudiari jarraikiz, lanak gauzatzeko, mantenuaren, dokumentazioaren edo bulegoko materialaren gastuetarako, baita lanak gauzatzeko beharrezko material teknikoak eskuratzeko gastuak ere.

Era berean, Aiarako Udalak konpromisoa hartu du lan horretan jardungo duten pertsonen lo egin eta beren burua garbitu ahal izateko toki bat bilatzeko.

#### **LAUGARRENA.-**

Dirulaguntza hori ordaintzeko modua honako hau izango da:

- Aiarako Udalak dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmen hau sinatu ondoren.

**Ordainketa egin baino lehen** Foru-ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen egiaztatzea aurkeztu beharko da, edo, bestela, Udalak dagokion organismoen informazio hori eskatu ahal izateko baimen-agiri bat.



- *Udalak dirulaguntzaren gainontzeko % 20a ordainduko du behin hitzarmen horren BOSGARREN KLAUSULAN jasotako dokumentazioa aurkezten denean eta funtsen helburua behar bezala justifikatuta dagoenean.*

*Aiarako Udalak edozein momentutan eskatu ahalko du horretarako beharrezkotzat jotzen duen informazioa.*

### **BOSGARRENA.-**

**DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA** Aiarako Udalean aurkeztu beharko da **2021eko urtarrilaren 31** baino lehen. Halere, gastuak dirulaguntza eman den egutegiko urtea amaitu baino lehen egin beharko dira, hots, 2020a amaitu baino lehen.

*Eskatutako justifikazioa epean aurkezten ez bada, dirulaguntza atzera botako da eta aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bati hasiera emango zaio.*

*Udaleko dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:*

- a) Jasotako dirulaguntza guztien aitortpena, bai erakunde publikoenak, bai pribatuenak, zeinak diruz lagundutako finantzaketarako lortu diren.*
- b) Foru-ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen egiaztatzea, edo, bestela, Udalak dagokion organismoei informazio hori eskatzeko baimen-agiria.*
- c) Jardueraren garapenari dagokion honako dokumentazio hau:*

- *Gauzatutako jardueraren memoria.*
- *Jardueraren gastu eta diru-sarreraren balantzea, beste erakunde publikoen eta eskubide pribatuko erakundearen dirulaguntza posibleak barne. Gainfinantzaketa kasuan, dirulaguntzaren kopurua murriztu egingo da dagokion zenbatekoan.*
- *Diruz lagundutako disziplinak gauzatzearen gastuak justifikatzen dituzten dokumentuak:*
  - *Langileak kontratatzeako gastuak: gizarte-segurantzako nominen kopia dagozkion ordainketa-dokumentuekin eta diruz lagundutako jarduera garatzeko kontratatutako langileen TC-1aren eta TC-2aren kopia.*
  - *Gainontzeko gastuak: justifikazio-fakturak, zeinek horiek egiteko legez ezarritako baldintzak bete behar dituzten. Transferentzia bidez ordaindu bada, horren egiaztatzea erantsi beharko da, edo, bestela, fakturan zehaztu beharko da esku-dirutan, zigilatuta edo sinadura originalarekin ordaindu zen.*
- *Lanen aurreikuspenaren kopia, baita 2020an zehar egin diren lanena ere.*

### **SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena**

*Hitzarmen honek 2020ko abenduaren 31ra arte iraungo du.*

### **ZAZPIGARRENA.-**

*ARANZADIKO ZIENTZIA ELKARTEAK Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso duela adierazi beharko du publikitatean.*

### **ZORTZIGARRENA.-**



*ARANZADIKO ZIENTZIA ELKARTEAK hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarreko dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapenen erregimena aplikatuko da.*

*Hitzartutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzak-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten bost orrialdeetako bakoitzean, eta hitzarmenaren dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean...”*

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Aranzadi Zientzia Elkarteari».

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

### Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2020ko uztailaren 14ko bilkuran, erabaki hau hartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du jada Batzordean adierazi zela aurten, osasun-krisialdiaren egoera dela eta, ezin izango dela bisita egin. Ondoren, aipatu du Udalak jarduera horretan laguntzen duela hitzarmena sinatzearen bidez eta udaleko lur orotarako ibilgailua eskainiz, baita Etxaurren Ikastolako azpiegiturak ere.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak gogorarazi du Babioko eta bertako aztarnategiko titulartasunari buruzko zuzenketa bat egin behar dela, horiek Izoriako Administrazio Batzordearenak direlako, ez Udalarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, idatzitako moduan transkribatutako erabaki-proposamena onestea.

**3.- Bake-epailea izendatzea, titularra eta ordezkoa.-** Ondoren, Aiarako udalerriko bake-epaile titular eta ordezkoren hautaketaren erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari. Erabaki-proposamenak honako hau dio:

### **"ERABAKI-PROPOSAMENA**

***HAU IKUSI DA:*** *Udal honek hasitako administrazio-espeditentea, Aiara udalerriko bake-epaile titularren eta ordezkoren lanpostuetarako pertsonak hautatzeko.*

***HAU IKUSI DA:*** *2020ko ekainaren 12ko ALHAOn (66. zk.) eta udaleko webgunean argitaratu da bake-epaile titularren edo ordezkoren lanpostuak betetzeko deialdia, eta horretarako eskaini den hamabost egutegi eguneko epean, honako eskaera hauek aurkeztu direla:*

- María Jesús Mendia Gobantes andrea
- Aitor Elexpe Cámara jauna



- Rubén Vélez de Mendizabal jauna
- Marta Díez Lazcano andrea

**HAU AINTZAT HARTU DA:** Hautatze-prozesuan parte-hartzea eskatu duten pertsonen Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritako lege-baldintza guztiak betetzen dituzte bake-epaile lanpostua betetzeko; adierazten dutenaren arabera, ez dute funtzio judizialak betetzeko aurreikusitako desgaitasun edo bateraezintasun kausarik.

**HAU AINTZAT HARTU DA:** Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera eta ekainaren 7ko (1995eko uztailaren 13ko BOE) Bake Epailei buruzko 3/1995 Araudiaren arabera, Udalbatzaren ardura da bake-epaile lanposturako hautatze-proposamena erabakitzea horretarako eskaera egin duten eta lege-baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Erabakia hartzeko beharrezkoa izango da Udalbatzako kideen gehiengo osoaren aldeko botoa.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dezan proposatu da:

**LEHENENGOA.**- Proposatzea eskumenak dituen organo judizialak **MARÍA JESÚS MENDIA GOBANTES ANDREA** hauta dezan udalerrri honetako bake-epaile titularra eta **MARTA DÍEZ LAZCANO ANDREAREN** ordezkoa izateko, 4 urteko epean zehar.

**BIGARRENA.**- Bidaltzea erabaki honen kopia Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko gobernuaren Idazkaritzara, horrek, komenigarritzat jotzen badu, udalerrri honetako bake-epaile titular eta ordezkoa izateko proposatutako pertsona izendatu dezan.

Arespalditzan.- **ALKATEA**

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA”

Proposamen hori jada aurkeztu zen 2020ko uztailaren 14ko Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuen Batzorde Berezian.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez, beraz, gehiengo osoz, erabaki du idatzitako moduan transkribatutako erabaki-proposamena onestea.

**4.- Hasieran onestea Kreditu Gehigarriaren 2/2020 Espedientea eta Idazkaritza Kontu-hartzaitzaren txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeagatik.**- Ondoren, diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatutako Kreditu Gehigarriaren 2/2020 Espedienteari buruzko 2020ko uztailaren 9ko Alkatetzaren erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari. Aipatutako Alkatetzaren erabaki-proposamen horrek honela dio:

*“HAU IKUSI DA: 2019ko aurrekontuaren likidazioak eragindako Gastu Orokorretarako diruzaintzako gerakinaren zati bat erabiltzeko beharra, 2020rako Udal-aurrekontuan gastu-partidak kredituz hornitzeko 2020ko ekainaren 15eko Udalbatza Osoaren erabakiaren bitartez aipatutako aurrekontua hasieran onesteko erabakitakoaren arabera.*

*Zerrendatutako partiden kreditua baliogabetu da 2020ko aurrekontuan; izan ere, ekitaldi honetako Udaleko diru-sarrerak murriztu egin dira COVID-19ak eragindako pandemiak sortu*



duen egoera ekonomikoaren ondorioz. Edonola ere, horiek 2020ko aurrekontuan sartzea da Udalaren asmoa, baina gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatu nahi ditu, zehazki, 2019 ekitaldiko aurrekontuaren likidaziotik eratorritakoarekin.

**HAU IKUSI DA:** Kontu-hartzailera organoak aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioz egin duen txostena, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren arabera, zeina 17/2014 Foru Arauak aldatu zuen. Txosten hori Udalbatzari bidaliko zaio kreditu-aldaketa honekin batera bertan horien berri emateko.

**HAU AINTZAT HARTU DA:** Arabako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak xedatutakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak xedatutakoa eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutakoa.

Aurreko guztia dela eta, Aiarako Udaleko Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatu da:

**Lehenengoa.-** Onestea jarraian zerrendatutako aurrekontu-aplikazioen kreditu gehigarria:

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>ZENBATEKOA/€</b>
943.434000	FINANTZAKETA-TRANSFERENTZIA UDALERRIKO ADMINISTRAZIO BATZORDEETARA	136.304,70 €.
323.622000	HOBEKUNTZAK ETXAURREN IKASTOLAN	34.330,88 €.
943.734000	ADMINISTRAZIO BATZORDEEI OBRENGATIKO DIRULAGUNTZA	35.000,00 €.
943.734001	ADMINISTRAZIO BATZORDEEI DIRULAGUNTZA, ORDAINSARI TEKNIKOENGATIK	35.000,00 €.
336.481008	ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA (BABIOKO INDUSKETA)	10.000,00 €.
342.609000	2020ko OBRA TXIKIEN EXEKUZIO-PROGRAMAREN BARNE DAGOEN UDAL-EKARPENA UDAL-IGERILEKUKO ALDAGELETAKO ESTALKIA ALDATZEKO OBRARI	12.241,48 €.
<b>ZENBATEKOA GUZTIRA:</b>		<b>262.877,06 €</b>

Aurreko zenbatekoa jarraian zerrendatutako baliabideen bitartez finantzatu da. Hortaz, espediente orekatuta dago eta ez du defizitik izango:

A. Areagotzeke dauden diru-sarreraren partidak edo erabiltzeke dagoen diruzaintzako gerakina:



<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/ €</u>
87001	GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA	262.877,06 €
	GUZTIRA .....	262.877,06 €

Onetsitako kreditu osagarrien kopurua horiek finantzatzen dituzten diru-sarreraren kopuruaren totalaren berdina da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun baliouduneko epean zehar, interesdunek aztertzeke eta egokitzeak jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

**Hirugarrena.-** Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea. Erreklamaziorik badago, beste erabaki bat hartuko da, zeinak erreklamazio horiek onesten edo baztertzen dituen.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Era berean, Udalbatzari 2020ko uztailaren 9ko Kontu-hartzailetzaren txostenaren berri eman zaio, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, honako hau dioena:

### **"KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA**

**GAIA:** *Gastu orokorrenzako diruzaintzako gerakinaren kargurako aurrekontu-aldaketa.*

17/2014 Foru Arauak aldatutako Arabako toki erakundearen aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren eraginez eta diruzaintzako gerakinaren erabileran eragindako aldaketen ondorioz (horien eraginez, gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa bat onetsi ahal izateko, Kontu-hartzailetzaren txosten bat igorri beharko zaio Udalbatzari, helburua egonkortasuna dela jakinarazteko) eta Aiarako Udalaren Kontu-hartzailetza postuaren berezko funtzioen arabera, honako txosten hau egin da, bi eranskinez osatua dagoena:

- I. eranskina: Gerakina beste kreditu batzuk gaitzeko erabiltzeko proposamena.
- II. eranskina: Kontu-hartzailetzaren txostena, gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatzearen ondorioz egonkortasuna bete dadin.

### **I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA**





**HONAKO ESPEDIENTE HAU EGIN BAINO LEHEN GASTATU EZ DEN 2019 EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA: 535.213,47 euro (gainontzekoa erabili da kreditu gehigarriko 1/2020 espedienterako (40.000,00 €), kreditu-gerakina sartzeko 1/2020 espedienterako (8.920,60 €) eta kreditu-gerakina sartzeko 4/2020 espedienterako (6.250,86 €).**

**ERABILERA-PROPOSAMENA: 262.877,06 €**

UDALERRIKO

ADMINISTRAZIO-BATZORDEETAKO

FINANTZAKETA-TRANSFERENTZIA: 136.304,70 €.

HOBEKUNTZAK ETXAURREN IKASTOLAN: 34.330,88 €.

ADMINISTRAZIO-BATZORDEEI OBRENGATIKO DIRULAGUNTZA: 35.000,00 €.

ADMINISTRAZIO-BATZORDEEI

DIRULAGUNTZA,

ORDAINSARI

TEKNIKOENGATIK: 35.000,00 €.

ARANZADI ELKARTEARI DIRULAGUNTZA (BABIOKO INDUSKETA): 10.000,00 €.

2020ko OBRA TXIKIEN EXEKUZIO-PROGRAMAREN BARNE DAGOEN

UDAL-EKARPENA UDAL-IGERILEKUKO ALDAGELETAKO ESTALKIA

ALDATZEKO OBRARI: 12.241,48 €.

**ZENBATEKOA GUZTIRA: 262.877,06 €.**

**II. ERANSKINA: IDAZKARITZA KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA,  
EGONKORTASUNA EZ BETETZEARI BURUZKOA:**

**I. TXOSTENAREN OINARRIA**

Arabako toki erakundeen aurrekontu egonkortasun eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 17/2014 Foru Arauak emandako idazkeraren arabera, aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-muga betetzen ez badira, horiek bete ez dituen Administrazioak Ekonomia eta Finantza Plan bat sortu beharko du, aurten eta hurrengo urtean helburuak edo gastu-muga betetzea ahalbidetuko duena.

Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikulua ezartzen du aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakinarekin gastuak finantzatzeagatik izan bada, Ekonomia eta Finantza Plana ordezkaturiko dela Udaltzari bidali beharreko ohar batengatik. Ohar horrekin, Udaltzari Kontu-hartzailatza funtzioak betetzen dituen organoaren txostenaren berri emango zaio gertaera horren berri emateko, eta atxiki beharko zaio Tokiko Udaltzaren finantza-iraunkortasunaren azterketa eta ebaluazio bat, zeinetan, honako hauek, gutxienez, aipatuko dituen:

a) Entitatearen eta haren mendeko erakunde eta organismoen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, aintzat hartuta joeraren bilakaera tendentziala (aldaketen mendekoak ez diren politikak) eta kontuan izan den aldirako aurreikusitako neurrien eragina.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioak hartuko dituzten kasu nagusiak.

d) Aurrekontu- eta finantza-egoerak diruzaintzako gerakina agortzeko momentuan.



e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak ekarriko duen gastu arruntaren gaineko eragina.

*Txosten hau kreditu-aldaketa espedientearen parte izango da.*

*Osoko bilkurako akta, Kontu-hartzaitza organoaren txostenarekin eta euskarriztat balioko duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundeen arloan eskumena duen sailari bidaliko zaio, 30 eguneko epean. Gainera, sail horrek beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahalko du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere, besteak beste, Ekonomia eta Finantza Plan bat prestatzea, tokiko erakundearen finantza iraunkortasuna bermatzeko. Adierazitako epea igaro bada, espedientea izapidetu ahalko da Arabako Foru Aldundiak berariazko ebazpenik eman gabe.*

**EREMU SUBJEKTIBOA:**

*Txosten honen helburua da txosten hau parte den espedientearen aurrekontu-aldaketaren finantzazioak eragindako ezegonkortasun egoera aztertzea. Horretarako, Aiarako Udaleko diruzaintzako gerakina erabili izan da.*

**HELBURUAK:**

*Diruzaintzako gerakinaren bitartez proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak egonkortasun printzipioa hausten du. Halere, ez betetze horren izaera ez da egiturazkoa, koiunturala baizik.*

Helburu horretarako, aurrekontuaren tamaina azertu behar da; horregatik baita txosten honen xedea honako helburu hauen egiaztapena:

- Aurrezki garbi positiboa
- Diruzaintzako gerakin positiboa
- Zorpetze bateratuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugen azpitik
- Aurrekontuen egonkortasuna superabitarekin edo finantzaketa gaitasunarekin bateratua (KSEren baldintzetan)
- *Gastu-muga* betetzea

*Arabako toki erakundeen aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazkeran, honako txosten hau horrela egituratuko da:*

- 1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: atal horretan Entitatearen aurrekontuen Egonkortasun helburuak betetzen diren ala ez aztertuko da.
- 2.- Gastuen eta Diru-sarreraren egoeren proiektzioak
- 3.- Inbertsioaren funtzionamenduak ekarriko duen gastu arruntaren gaineko eragina.

**II. EGUNGO EGOERAREN FINANTZA- ETA EKONOMIA-DIAGNOSIA: AURREKONTUEN EGONKORTASUN-HELBURUAK**

*Onetsitako azken likidazioan lortutako datuetatik, honako datu hauek dira nabarmentzekoak:*

MAGNITUDEA	ZENBATEKOA	BETETZEA / EZ BETETZEA
Aurrezki garbi mugatua	361.604,53 €	POSITIBOA
Diruzaintzako gerakina	590.384,93 €.	POSITIBOA



<i>Aurrekontuen emaitza</i>	272.839,66 €	<i>POSITIBOA</i>
<i>Zorpetze-maila</i>	0	
<i>Aurrekontuen egonkortasuna</i>	305.675,20 €	<i>SUPERABITA BETETZEA</i>
<i>Gastu-araua</i>	20.388,08 €	<i>% 4 EZ BETETZEA</i>

### **III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK**

*Aldi horretarako Ekonomia eta Finantza Planean zifrak proiektatzeko aukera ematen diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez ezartzeko, honako EGOERA posible hau ezartzen da:*

- *Abiapuntua ekonomia suspertzeko egoera da, zeinetan uste dugun tokiko erakundearen jarduera ekonomikoa mantenduko edo apur bat haziko dela. Horrek, tokiko diru-sarrerak areagotuko ditu (batez ere TOKI ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO FORU FUNTSean parte hartzeagatik eskuratutakoak) eta zerbitzu publikoen prestazioa areagotuko du.*
- *Gastuei dagokienez, murrizketak mantentzea da abiapuntua, bai langileen gastuak, bai bestelako gastuak ere, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetatik eta aurrekontuen egonkortasun helburuak betetzetik eratorritako murrizketetatik datozenak (gastu-araua, gastu-muga, finantza-egonkortasuna eta iraunkortasuna).*

### **MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA**

*Aurreko bi ekitaldietan aztertutako magnitudeen bilakaerak honako hauek dira:*

<b>HELBURUAK</b>	<b>2.018</b>	<b>2.019</b>
<i>Aurrekontuen egonkortasuna</i>	302.088,60	305.675,20
<i>Egonkortasuna/Diru-sarr. finantzarioen %</i>	ez % 12,64	% 12,75
<i>Gastu-araua</i>	-122.672,80	20.388,08
<i>Zorpetzea</i>	0	0
<i>Aurrezki garbi mugatua</i>	553.209,91	361.604,53
<i>Aurrezki garbia/Diru-sarrera arrunten %</i>	% 24,90	% 15,56
<b>DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>	<b>588.263,66</b>	<b>590.384,93</b>

### **IV. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINZAKO GERAKINA AGORTZEKO MOMENTUAN**

#### **III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA**

*Diruzaintzako gerakin positiboak erakutsi egiten du erakundeak osotara epe motzean pilatutako likidezia, denbora tarte zehatz batean. Hori etorkizun hurbilean gastuak finantzatzeko erabil daiteke.*

#### **Gastu orokorretako diruzaintzako gerakin doitua.**

*Gastu orokorretarako gerakina aurrekontuari aplikatu beharreko hartzekodunen datuekin eta ordaintzeko dauden diru-sarreraren itzultzeekin doitzen da; horrek magnitude*



*horren irudi errealago bat ematen digu. Magnitude horrek tokiko erakundearen epe laburrerako benetako likidezari buruzko informazioa eskaintzen digu.*

### **III-C.2 AURREZKI GARBIA**

*Aurrezki garbiak Udalbatzaren zorpetze-gaitasunaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du ahalmenik epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko. Aurrezki garbia positiboa izanez gero, erakundeak epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko zer ahalmen duen jakingo dugu, bai eta eragiketa horiek zein zenbatekorekin eta baldintzarekin hitzar ditzakeen ere. Dena dela, magnitude honek erakundearen zorpetze ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa ematea nahi badugu, foru arauak ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzakete, aparteko diru-sarrerak eta errepikatzen ez direnak kenduz.*

### **III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA**

*Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz sor daitezke, horrek finantza-karga handitzea baitakar. Horri gainerako gastu arrunta gehitzen bazaio, ezinezkoa egiten da arazoak erakundearen diru-sarrera arrunten bidez xurgatzea eta, beraz, aurrezki garbia negatiboa izango da..*

### **III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA**

*Aurrekontu-egonkortasunak erakunde baten finantzatzeko gaitasunaren/beharraren berri ematen digu. Egonkortasunak zeharka berekin dakar zorpetzeari mugak jartzea, urtero amortizatzen den zenbatekotik gora (KES 95en arabera kalkulaturia) handitu ez dadin. Erakundeak finantzaketa beharra badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru-sarrera ez-finantzarioek baino gehiago egiten badute, erakundeak kanpoko finantzaketa beharko du (zorpetzea) gastuei aurre egiteko.*

*Erakundeak finantzatzeko gaitasuna badu (bere gastu ez-finantzarioak bere diru-sarrera ez finantzarioak baino txikiagoak dira), horixe da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen tarte.*

### **III-C.5 GASTU-ARAU.**

*Gastu-araua zerga-arau bat da, eta haren helburua da zenbatu daitekeen gastua mugatzea, hori ez dadin handitu ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitakoa baino ehuneko handiagoan. Hala, aurrezki publiko handiagoa lortu ahal izango da, muga bat jarrita diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera egiten ez den gastua handitzeari.*

### **III-D. ZENBAIT MAGNITUDEREN BILAKAERAREN ONDORIOAK**

**Txosten honetan jasotako suposizioen arabera aztertutako gastuen eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren proiektioei dagokienez, ondorioztatzen da aurrekontu-aldaketa diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeak ez dakarkiola erakunde honi egiturazko desorekarik, baizik eta desoreka koiunturala, eta berriz beteko dira ezarritako helburuak urtebeteko epean, Ekonomia eta Finantza Planik egin beharrik gabe.**

## **V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK ZEIN ERAGIN EKARRIKO DIEN GASTU ARRUNTEI**



*Datozen ekitaldietarako bildutako proiektzioetan (III.C) zenbatesten da aurrezki arrunt garbi positiboa egongo dela; beraz, gastuaren ondorioz etorkizunean sor litekeen gastu arrunta, kreditu-aldaketa honek finantzatuko duena, erakundeak sortutako diru-sarrera arruntek hartuko dute bere gain. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago; beraz, bi datu horiek elkartuta, ondoriozta daiteke haren etorkizuneko finantza-iraunkortasuna ez dela arriskuan jartzen.*

*Gainera, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketak, bere horretan, ez duela ekarriko gastu arrunta nabarmen handitzea datozen ekitaldietan.*

*Txosten hau kreditua aldatzeko espedientearen zati bat izango da.*

*Osoko bilkuraren akta, Kontu-hartzaitzako organoaren txostena eta euskarri moduan erabilitako beste agiriak Arabako Foru Aldundiko tokiko erakundeen inguruan eskuduna den sailari bidaliko zaio, eta hark, 30 eguneko epean, beharrezko zaion informazio gehigarria eta neurri osagarriak hartzeko eskatu ahal izango du. Horien artean, Ekonomia eta Finantza Plan bat egiteko eskatzea badago, tokiko erakundearen finantza-iraunkortasuna ziurtatzeko.*

*Arespalditzan.*

**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

*Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua".*

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du zalantza bat duela. Izan ere, ulertu du Aranzadi Zientzia Elkarteari Babiorako emandako dirulaguntza diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatzen dela orain. Hala ere, berak ikusi du aurrekontuan horretarako partida bat dagoela, eta, ondorioz, hori bikoizturik dagoela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du aurrekontuaren lehenengo bertsioan partida hori zegoela, baina TEFFFaren minorazioa aplikatzean, kendu egin zela. Adierazi du, edonola ere, egiaztatuko duela.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du bere talde politikoa abstenitu egingo dela, eta, jarraian, honako hau dioen gutun bat irakurri du:

***“EH Bildun uste dugu gerakina aparteko gastuak sortzen dituzten egoerei aurre egiteko tresna baliagarria dela, baina azken urteotan ikusi dugu horren erabilera etengabea bihurtu dela, eta diru-poltsa handi bat sortu dela, askotan aurrekontuko partidekin aurreikusitako eta definitu beharko liratekeen gastuei aurre egiteko.***

***Udal-aurrekontua ekitaldian zehar gastuak eta inbertsioak zehazten dituen tresna da. Gastatzen iristen ez diren edo gerakina gizentzeko gutxieneko zenbateko bat gastatzen duten partidak aurrekontutik ateratako ehunka mila euroko poltsa bat edukitzeak dinamika batera eramaten du, non aurrekontuak ezer gutxi balio duen, behar izanez gero, dena gerakin hori erabiltzera fio bada.***

***Berriro diogu aurrekontukoak erantzun behar diela beharrei, gastu publikoaren aurreikuspen eta planifikazio onaren arabera zehaztutako eta kalkulaturako partiden bidez, eta ez dagokion enuntziatua duten partida ekonomikoen zerrendatze hutsarekin, inbertsioak gerakinari fidatzen zaizkion bitartean.***



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du aurrekontua aurreikuspen bat dela, onetsi zenean egongo zen errealitateari dagokiona; baina pandemiagatik diru-sarrerak murriztu egin direnez, espediente honetan jasotako gastuei aurre egiteko modu bakarra diruzaintzako gerakin likidora jotzea zen, udalerriko administrazio-batzordeen baliabideak ez urritzeko.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da eta erabaki du transkribatutako erabaki-proposamena onestea, EAJ-PNV udal-taldetik bertaratu diren ordezkarien eta AIARA BATUZ udal-taldearen ordezkariaren aldeko botoarekin eta EH BILDU udal-taldearen ordezkarien abstentzioarekin. Erabakia 2/2020. zenbakiko espedienteari dagokio, kreditu gehigarriari buruzkoari. Erabaki-proposamena idatzitako moduan onetsi da. Gainera, Udalbatza 2020ko uztailaren 9ko Kontu-hartzailetzaren txostenaren jakinaren ganean geratu da; hori aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa da.

**5.- Honako hauen berri ematea: 2020ko apirileko, maiatzeko eta ekaineko kontakteta-aktak, Gastu eta Diru-sarrearen balantzea, Kartillen egoera eta Kredituen Aldaketak.-** Jarraian, Udalbatzari eguneko gai-zerrendako puntu honetan aipatzen den dokumentazio ekonomikoaren berri eman zaio. Dokumentazioa deialdiarekin batera bidali zitzaizen zinegotziei.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da.

**6.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.-** Jarraian, Udalbatzari 2020/253 eta 2020/327 (biak barne) bitarteko ALKATETZA DEKRETUEN berri eman zaio. Hona hemen dekretuen helburua, laburbilduta:

### **" ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-**

ALKATETZA DEKRETUA.- 2020/253.- G.C.A.- Aparkatzeko txartela ordezkatzeari.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/254 - MA.Z.L.- Informazio publikorako sarbidea eta obra-lizentziaren espedienteen kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/255.- MV.I.B.- Hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea, Murgako etxebizitza bateko estalkiaren eta solairuaren eraiste partzialeko obrak egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/256.- G.PP.O.- Udal-artxiboan dagoen espedienterako sarbidea izateko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/257.- JR.I.V- Kexaako landa-finka banatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/258.- I.F.R.- Arespalditza zaldiak hazteko nabea handitzeko III. fasean dagoen udaleko obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/259.- MV.I.B.- Udal-lizentzia ematea Murgako etxebizitza baten ondoko lastategi baten solairuarearen estalkia eta solairua partzialki eraisteko obrak egiteko.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/260.- Goiener S. Koop.- Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/261.- EDP COMERCIALIZADORA SAU- Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/262.- A.C.P.- Aparkatzeko txartelaren berriztapena ematea, iraungitzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/263.- Onestea erregistratutako fakturen F/2020/8 kontabilitate-zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/264.- Ekain Abokatuak SA.- Aiarako Udaleko aholkularitza juridikoko eta defentsa judizialeko zerbitzua ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/265.- A.V.G.- Murgako lursail batean haragitarako behien abere-ustiapen gisa sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/266.- F.C.M.- Kexaan egindako hiri-berriztapeneko espedientea ebatzi da eta obrak legeztatze dokumentazioa eskatu da.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/267.- 2020ko TMIZaren eta HIRIKO OHZren ordainketa-egutegia aldatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/268.- F.J.A.O.- Dokumentazio osagarria eskatzea eskatutako banatzeko lizentzia izapidetzeko.

ALKATEA DEKRETUA - 2020/269.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidatze-faktura onestea, 2020ko ekainekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/270.- Amukatu Elkartea.- 2020an emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/271.- J.C.S.I.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/272.- E.I.M.- Izoriako etxebizitza baten estalkia birgaitzeko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/273.- E.A.G.- Dokumentazioa eskatzea Maroñoko etxebizitza bat birgaitzeko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/274.- AFari 2020. urtean kultura-jarduerak egiteko dirulaguntza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/275.- M.I.C.F.- Udalaren obra-lizentzia ematea Arespalditzako etxebizitza baten leihoak ordezkatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/276.- E.Q.I.- Aparkatzeko txartela berritzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/277.- M.D.S.- 4.2. kategoriako arma-txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/278.- EH Bildu udal-taldea.- Arespalditzako Azokan informazio-puntu bat jartzeko baimena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/279.- Quesería Izoria SL.- Udalaren obra-lizentzia ematea Izorian erlauntzak jartzeko estalpea eraikitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/280.- A.P.U.- Lantenoko Pizparrutxi auzoko etxebizitza bat lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/281.- Quesería Izoria SL.- Dokumentazio osagarria eskatzea Izorian erlauntzak jartzeko jardueraren aurretiko komunikazioa onesteko.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/282.- Udalaren obra-lizentzia ematea Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Madaritik Menagaraira doan bidea konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/283.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Dokumentazio osagarria eskatzea Menagaraiko saneamendu-sareko zati bat konpontzeko udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/284.- Langileen eta alkatearen nominen hilabeteko txostena onestea, 2020ko ekainari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/284.- Langileen eta alkatearen aparteko ordainsariaren nominen hilabeteko txostena onestea, 2020ko ekainari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/286.- AFA.- 1/2020 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion likidazioa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/287.- Escuela Art. Valle Llanteno.- Lankidetzaren hitzarmenean emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/213.- Talde politikoei ekarpen ekonomikoa, 2020 ekaina.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/289.- I.F.R.- zaldien nabea handitzeko udalaren obra-lizentzia ematea. III. fasea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/290.- Etxegoieneko Administrazio Batzordea.- Udalaren obra-lizentzia ematea Etxegoienetik Venta Trigueroserako bidea hobetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/291.- Onestea udal-igerilekuetan estalitako espazioa zerbitzuan jartzea erabilera publikorako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/292.- IHOBE SA enpresaren laguntza-eskaera onestea.- Udalsarea 2030 Proiektu Berritzaileen Programa laguntza-eskaera onestea. 2020ko deialdia.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/293.- EH Bildu udal-taldea.- Arespalditzako Azokan informazio-puntu bat jartzeko baimena, 2020-07-05erako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/294.- I.F.R.- Zaldien nabea handitzeko obraren hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea. III. fasea

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/295.- R.D.B.- Olabazarren etxebizitza bat eraikitzeko udalaren obra-lizentzia ematea eta dokumentazioa eskatzea eraikuntza-obrei ekiteko baimena emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/296.- Asociación Cultural Artística Valle de Llanteno.- 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedurari ekiteko Dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/297.- CD Bolos Lekubatxe.- 2019ko beka itzultzeko prozedurari hasiera emateko Dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/298.- Orixe Comercial SL.- Zuhatzan bi familiarentzako eraikinak egiteko obra-lizentziaren luzapena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/299.- Orixe Comercial SL.- Dokumentazio osagarria eskatzea Zuhatzan bi familiarentzako bi eraikin egiteko obraren berme gisa jarritako hondakinen kudeaketarako fidantzaren % 50 itzultzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/300.- R.D.B.- Olabazarren etxebizitza baten eraikuntzako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/301.- Aiarako Kuadrilla.- Onestea HHSen erregulazioari





dagokion ekarpena, 2019. urtea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/302.- Gizarte Segurantzako DN.- 2020ko maiatzeko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/303.- Udal-igerilekuetan mantentze-lanetarako eta arretarako zerbitzuaren kontratua luzatzea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/304.- ISS Facility Services SA.- Udal-igerilekuen garbiketaren eta botikinaren zerbitzuak sartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/305.- E.I.M.- Obra-lizentzia ematea Izoriako Ibarra auzoko 28. zenbakiko baserriaren estalkia birgaitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/306.- E.V.C. eta E.V.O.- Eskatutako obra-lizentzia ukatzea eta Salmantongo etxe bateko 2. solairuko obregatik hiri-lehengoratzeari buruzko espedienteari ekitea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/307.- J.I.G.- Dokumentazioa eskatzea Izoriako lursail batean negutegia jartzeko udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/308.- J.G.L.- Dokumentazio osagarria eskatzea Izoriako lursail batean negutegia jartzeko udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/309.- BASER COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA SA.- Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 1. seihilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/310.- Hiri Ondasunen gaineko Zergaren Errolda onestea, 2020. urtea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/311.- EDP COMERCIALIZADORA SAU.- Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/312.- Gizalab Fundazioa.- Errekeritu da behin-behineko itxiera kentzeko Luiaondon dagoen Aiarako 3. zenbakiko industrialdeko 1318. lursaileko horma eraisteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/313.- Talleres Banoa SL.- Llanos Zulueta Administrazio Batzordeari alegazioak aurkezteko epea ematea eta neurketa akustikoko froga egiteko baimena eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/314.- Kexaako Administrazio Batzordea.- Dokumentazio osagarria eskatzea Kexaako hilerrian kolunbarioak jartzeko udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/315.- Olabazarreko Administrazio Batzordea.- Dokumentazio osagarria eskatzea Olabazarreko bankuak berriz margotzeko eta espaloia garbitzeko udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/316.- Udal-igerilekuetan estalitako espazioko obraren 1. ziurtagiria onestea. IBERICA PROVISER SLU.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/317.- Onestea erregistratutako fakturen F/2020/9 kontabilitate-zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/318.- Etxaurren Ikastola.- 2020ko ekaineko nominak ordaintzea talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/319.- Urruela SC- Obra-lizentzia ematea Arespalditzako abere-pabiloiaren estalkian plaka fotoboltaikoak jartzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/320.- Ned Suministro GLP SAU- Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 2. hiruhilekoa.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/321.- Nortegas Energía Distribución SAU- Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/322.- I.L.B.- Dokumentazio osagarria eskatzea Lantenoko lursail bat ixteko obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/323.- E.A.G.- Dokumentazio berria eskatzea Maroñoko etxebizitza bat birgaitzeko obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/324.- Menonoyo Gochiren Eraikuntzak SL.- Iraungitzeagatik Zuhatzako Urbanizazio-Plan Partzialaren Proiektuaren onespren-espeditentea artxibatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/325.- Bombas Zeda SA.- Udal-igerilekuetarako bi ponpa hornitzeko kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/326.- Alkatzaren eskumenak eskuordetza ezkontza zibil bat ospatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/327.- Goiener S. Koop.- Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2020ko 2. hiruhilekoa.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdetu du 2020/324 ALKATETZA DEKRETUAREN inguruan. Hori Menoyo Cochiren Eraikuntzak SL enpresarena da, Zuhatzako Urbanizazio-plan Partzialaren Proiektuaren onespren-espeditentearen ingurukoa.

Alkate jaunak erantzun du irekitako espeditentea artxibatu dela igarotako denboragatik eta dokumentazio faltagatik; beraz, berriz ere irekitzeko eskatu beharko dute, bidezkoa bada.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**7.- Gai-zerrendatik kanpoko gaia.-** Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio gaurko eguneko gai-zerrendan sartu behar dela, AJAko 91.4 artikuluan ezarritako premiazko bidearen bidez, honako gai hau: Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jauna atxikitzea Udalean eratutako informazio-batzordeetan, EH BILDU talde politikoaren izenean.

**7.1.- Udalean eratutako informazio-batzordeetan atxikitzea Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzia.-** 2020ko uztailaren 21ean (sarrera-erregistroko zk.: 2373), Karmele Población Martínezek (EH BILDU) honako hau dioen mezua elektronikoki bat helarazi zuen:

*“Koldo Mendioroz Goldarazek parte hartuko du hurrengo batzorde hauetan:  
. Hirigintza, obrak eta zerbitzuak eta ingurumena  
. Lehen sektorea, ekonomia, sustapena eta enplegua  
. Harremanak Batzorde administratiboekin  
. Ogasuna, funtzio publikoa, barne araudia eta kontuak  
Ordezkoak, orain artekoak izango dira”.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**8.- Eskaerak eta galderak.-** Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio gaur goizean Luiaondoko Barrena kaleko obraren adostasun-akta sinatu dela. Era berean, aipatu du kartel batzuk egin eta bidaliko direla. Horietan adieraziko da



aurreko aldean aparkatzea debekatuta dagoela, eta, ondorioz, zentzuzko epe bat igaro ondoren, aparkatzen bada, Ertzaintzak isun bat jarri beharko du.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak honako galdera hauek egin ditu:

- Galdetu du igorri den Mandaguari dagokionez adostasun faltari buruzko WhatsAppa, abeltzainei isunak egon daitezkeela ohartarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du oraindik ez dela bidali.

- Horrez gain, galdetu du osasun-plana lantzeko Abererekin egingo den bileraren inguruan.

Alkate jaunak erantzun du bihar haiekin hitz egingo duela. Era berean, adierazi du Abereri jakinarazi zitzaioela Batzarraren eta Gorobelego herri-mendien aprobetxamendua egiten duten abeltzainak koordinatu nahi ditugula. Izan ere, horrela, dagozkion udaletxeek egokitzat jotzen badute Osasun-Planera atxiki ahal izango dira eta ahalik eta ekonomikoena suertatuko da.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du aurreko Batzordean Osasun Planaren inguruko zalantza bat azaleratu zuela; izan ere, esan zen ez zela trikomona-testarik egingo behiak eta zezenak ez zirelako elkarrekin egongo. Halere, zezenak behirik ez estaltzeak ez du esan nahi trikomona testarik egin behar ez denik. Zinegotzi andreak gaineratu du bi aurrekontu eskatu beharko liratekeela, trikomona-testekin eta trikomona-testik gabekoa; izan ere, etorkizunean zezena behiekin izatea baimentzen bada, trikomona-testak egin beharko lirateke.

Alkate jaunak adierazi du ez duela zentzurik zezenik gabe trikomona-testarik egitea. Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du gaia oso argi geratu behar dela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak uste du Aberek ulertu zuela; dena den, berriz galdetuko du.

- Galdetu du Gorobelen zegoen zezenari buruzko idatziaren inguruan. Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du atzo ikuskapen bat egin zela Arabako Foru Aldundiaren Oihanzaingo Zerbitzuarekin, Unai Campo zinegotzi jaunarekin eta Abererekin. Bertan egiaztatu zen orain jada ez dagoela zezenik. Adierazi du txostena igorriko dela.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak honako galdera hauek egin ditu:

- Zorroza enpresako kaxa elektrikoaren inguruan galdetu du. Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du hori ikustera joan direla, baina ez dutela irekirik ikusi. Berriz ere joango dira. Gaineratu du udaleko teknikaria txosten bat egiten ari dela atea ordezkatzeko emandako lizentziaren inguruan, baldintzak betetzen dituen egiaztatzeko.



Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du tokiko hesia aldatu dela, baina ez dakiela ziur hori aldatzeko baimena zegoen edo ez.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du eskatu duela aldatutako hesia aurrekoaren baldintza berberetan ordezkatzeko.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu du Udalak Zorrozarri adierazi zion non jarri behar zuen hesia.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du hesia aldatzeko baimena eman zitzaioela, baina ez lekuz aldatzeko. Gaineratu du txosten teknikoa izatean enpresari igorriko zaiola.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du hesia lekuz aldatu dutela haiei iritsi zaien informazioaren arabera.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du zalantzak daudela; izan ere, badirudi hesia leku berean dagoela, baina aurrekoa baino handiagoa denez, toki handiagoa hartzen duela.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du Gardenerenaren aurrean adingabekoentzat arriskutsuak izan daitezkeen bideko zulo batzuk daudela.

Alkateak erantzun du errepidearen gaineko eskumena Aldundiarena dela eta zaindariari jakinaraziko diola. Edonola ere, hor egon ziren eta ez zuten ezer ikusi.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) andreak honako galdera hauek egin ditu:

- 2290. zenbakidun sarrerari buruzko galdera egin du; Barrena kaleko lanen prezio kontraesankorrei buruzkoa.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez zaiola obrari harrerarik egin ez zirelako irristagarritasun-mailak betetzen; gainera, enpresak ulertzen zuen beharrezko maila lortu behar izatean, berak ordaindu behar ez zituen gastu batzuk sortuko zitzaizkiola.

- Adierazi duenez, aurreko osoko bilkuran galdetu zuen noiz amaitu beharko liritekeen Barrena kaleko obrak eta igerilekuetakoak, eta ez duela erantzunik jaso.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du oraindik ez dela begiratu, baina posta elektronikoz bidaliko duela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du asko atzeratu direla.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du Barrena kaleko obretan luzapenak eskatu direla. Bestalde, igerilekuetako obrei dagokionez, polikarbonatoa Italiatik zetorren eta pandemiagatik atzerapenak egon dira hori jasotzean.

- Galdetu nor den Luiaondoko kontsultategia kudeatzeaz arduratzen dena.

Alkate jaunak erantzun du guk egin beharrekoa egin dugula Osakidetzak hori bere gain hartzeari dagokionez: zati hori banatzeko zatiketa horizontala egin genuen eta kontsultategia gaitzusteko erabakia hartu zuen Udaltzaren. Orain jakin behar duguna da Osakidetzak kudeaketa onesten duen edo ez.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu du noiztik dagoen irekita kontsultategia.

Alkate jaunak erantzun du 2016tik dagoela irekita, baina Udaltzaren erabakia 2017koa edo 2018koa dela.



Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du denbora gehiegi iruditzen zaiola eta horri ekin beharko geniokeela. Izan ere, kudeaketa kostu handia da Udalarentzat eta Osakidetzaren betebeharra bere gain hartzea bada, har dezala.

Alkate jaunak argitu du ez dela Osakidetzaren betebeharra sortzen diren kontsultategien jabetza bere gain hartzea; Udalak egiten duena da hori egiteko eskatzea.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du, haiek dakitenez, Osakidetzako norbaitek esan zuela hori aztertuko zuela eta oraindik asmo hori dutela. Dena den, denbora gehiegi iruditzen zaie eta uste dute hori nonbaitera bideratu behar dela, baiezkorantz edo ezezkorantz.

Alkate jaunak esan du aurreko egunean bilera bat egitearen zain geundela aipatu zuela, eta denboran luzatzen bada, horri ekingo diola.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak eskatu du ezer jakitean jakinarazteko.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du gutxienez baietz edo ezetz esan beharko litzatekeela.

Alkateak adierazi du erabakia eta horren justifikazioa duen idatzi bat bidali beharko liguketela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du batzuetan jabetza Udalarena dela eta besteetan ez, baina mugitu behar dela, Udalak horretan gastatu behar duen diruagatik.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotzi jaunak honako galdera hauek egin ditu:

- Ekainaren 4ko sarrera baten inguruan galdetu du, zeina Eusko Jaurlaritzaren idatzi bati buruzkoa zen. Bertan lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura bat hasteari buruz hitz egiten zen eta hori egiteko eskatzen zen. Zinegotziak eskatu du lan horien emaitzak jakinarazteko, garrantzitsua iruditzen zaiolako Aiarako herritarrek horren berri izatea.

Alkate jaunak adierazi du ez dela Eusko Jaurlaritza lan horiek egingo dituen. Lursailaren jabearen betebeharra da eta horregatik izapidetzen da espedientea Eusko Jaurlaritzan.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du uste duela Aiarako Udala aitzindaria izan behar duela ingurumen-babeseko arloan eta informazio eguneratua izan behar duela.

- Lehen Sektoreko Batzordeari dagokionez, galdetu du zein momentuan egin ahal izango diren ekarpenak Gorobealeko Aprobetxamenduen Ordenantzan. Alkateak erantzun du data irailean jarriko dela. Gaineratu du Ermandadearen eta Abeltzainen Elkarteko kide diren gainerako udalerriei jakinarazi beharko litzaikeela. Adierazi du ideia abuztua aurretik ermandade bat egitea dela.

Eta jorratzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du zazpiak eta berrogeita hamahiru direnean. Eta landutakoa jasota gera dadin, akta hau eman da, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko uztailaren hogeita hiruan. Nik, idazkaria naizen honek, guztiaren fede eman dut.



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

O.E.  
ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.